

Carlos Urquijo, beste behin

“TOLOSALDEKO ATARIA”K jaso du albistea. Carlos Urquijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak bigarren salaketa jarri dio Tolosako Udalari. Kultur jarduerak diruz laguntzeko oinarrietan euskara bultzatzeko irizpideak jarri ditu eta horretara dator salaketa. Udalak adierazi du legeak ematen dizkion aukera guztiak baliatzen segiko duela.

Lehen errekurtsua 2013ko urte hasieran jarri zion Urquijok Udalari.

Ziburuko auzapezak ez dio ez lurrik ez eraikinik eskura jarri nahi ikastolari

BI URTEKO HITZARMENA zuten Ziburuko ikastolak eta Ziburuko Herriko Etxeak. *Kazeta.infok* emandako albistearen arabera, maiatzaren 30ean, Guy Poulou auzapezak adierazi zien ez duela akordioa berrituko. Horren ondorioa: ikastola lurrik eta eraikinik gabe geratuko da.

Duela bi urte sortu zen Ziburuko ikastola, ama eskolako haurrak biltzeko. Marinelako eskola publi-

koan obrak egin behar zituzten eta eskola horretako ikasleak aisialdi zentrorra eraman zituzten. Marinelan bi eraikin prefabrikatu jartzea adostu zuen Ziburuko ikastolak Herriko Etxearekin. Obrak bukatu dira ordea, eta Marinelara itzuliko dira eskola publikoko haurrak. Akordioa ere amaitu da, eta berri-tzeko intentsiorik ez.

Maiatzaren 30eko bileran, auzapezak prefabrikatuak Seaskaren Piarres Larzabal kolegioan ezartzea proposatu zien, baina Ziburuko ikastolaren ustez, kolegioa “txikiegia da” eta ez ditu haurrak “oilategian” eduki nahi. Ikastolak bi proposamen luzatu dizkio. Bata, eremu publikoko aparkaleku bat uztea prefabrikatuak jasotzeko, eta bestea, auzapezak agindu zuen haur txikientzako poloa horretarako erabiltzea. Lehenengoari ezetz, eta bigarrenari, berak ez duela inoiz agindu haurrentzako polorik.

Gauzak aldatzen ez badira, datorren eskola sartzean ez dute eraikinik eta lurrik izango. Egoera salatzeko, ekainaren 9an elkarretaratzea egin zuten eta 200 lagun bildu ziren posta aitzinean. Lehenengo urratsak ez badu ondorio-rik, bestelako bideak urratu behar-ko dituztela adierazi digu Laida Mujika Ziburuko ikastolako lehendakariak. Litekeena da gurasoek manifestazioa antolatzea edo eraikin-kin bat okupatzea.

EKONOMIAREN TALAIAN

Borboi erregearen aberastasuna eta bortxaezintasuna

BETI IZAN DA SEKRETUA abdikatu berri duen Juan Carlos Borboikoaren aberastasuna. Errege Etxearen eta gobernuen opakotasuna sistematikoa izan da. Orain arte, Errege Etxearentzat aurrekontu orokorretan erreserbatutako diru kopurua baino ez dugu jakin, 8 milioi euro baino gehiago. Duela hilabete batzuk Erregearen urteko soldata argitaratu zen, 280.000 euro, baita oinordeko Feliperena ere, 140.000 euro. Borboikoaren ondare pertsonalaz baina, ez da ofizialki ezer esan. Atzerrian zenbait datu argitaratu izan direnean, ohiko erantzun labur bera jaso izan dute: “Ez dira zuzenak”. Baina sekula ez dute zifra ofizial zuzenik eman.

Bruselako Unibertsitateko Herman Matthijs-ek, Europako errege etxeen aurrekontu eta ondareetan adituak, 2012an Espainiako Errege Etxearekin alderatu nahi izan zituen eskura zituen datuak, alferrik baina. Ikerlariak zioen Borboikoaren ondarena 1.640 milioi eurokoa zela. Datu horrek bat egiten zuen *Forbes* eta *New York Times*ek argitaratutakoekin. Beste iturri batzuek diote 2.000 milioi eurokoa dela

bere aberastasuna. Antza, 540 milioi euro irabazi zituen errenta aldakorrean eta artelanetan egindako inbertsioetan; beste 1.000 milioi euro hainbat ondasuni dagokie. Denek galdera bera egiten dute: nola egin ahal izan du halako dirutzarra, erregetza kasik zerotik hasi bazuen? Susmoak dira, ea zer harreman izan duen mundu arabiarreko enprekin eta aberatsekin.

Judizialki blindatuta egon denez –egoera horretan jarraitu nahi du abdikatu eta gero ere–, edozer ikerketari iskin egin dio. Logikoa litzateke, edozein herritar bezala, bera eta bere aberastasuna ikertzea. Edonola, halako diru mordoarekin erretiratu ondoren, eskandalua litzateke Gobernuak monarkarentzako aurrekontua mantentzea, zer eta gure zergen bidez. Aski da “mendekoen” kontura aberasteaz. Gainera, ez genuen inoiz aukeratu. Beste errepublika baten garaia da, gardena, justiziaren aurrean inor blindatuko ez duena. Erreferenduma orain!

Juan Mari
Arregi



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5, Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com